



Arartekoaren 2020R-539-18 Ebazpena, 2020ko martxoaren 9koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa jasotako prestazioen erreklamazioa, jakinarazpena egiteko aurreikusitako berme formalak ez baitira bete.

Aurrekariak

1.- Herritar batek kexa aurkeztu zuen Arartekoan ez baitzegoen ados Lanbidek bidegabe jasotako prestazioak erreklamatzearekin eta itzultzeko prozeduretako bat betearazpen-bidera eramatearekin.

Kexagileak ziurtatu zuen ez zuela zorraren berri izan 2018ko otsailaren 20ra arte; orduan, bere banku-kontuan zenbateko bat enbargatu ondoren, Lanbideren bulegora jo zuen, eta bertan eman zioten ebazpenaren kopia, 2014ko azaroaren 14koa. Han jasotzen zen 2012ko urtarrilaren 1etik 2013ko urriaren 31 bitarte bidegabe jasotako prestazioei dagokien 10.046,74 euro itzuli behar zirela. Betearazpen-bidera igorri ondoren, zenbatekoa 12.969,20 euro da.

2014ra arte, interesduna diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra izan zen. Kexa-idazkian adierazi zuen 2014ko otsailean etxebizitzaz aldatu zela, eta hori bere bulegoan jakinarazten saiatu zela, harrezkero prestaziorik jasotzen ez bazuen ere. Dioenez, esan zioten diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular ez diren pertsonak ez zituztela etxebizitza aldaketak jakinarazi behar.

Kexagileak ziurtatu zuen ez zuela alde zuzenik inolako jakinarazpenik jaso, ezta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak xede horretarako emandako premiamenduzko probidentziarik ere; eduki berari buruzko beste kexa-espeditante batzuetan, pertsonak adierazi dute jaso dutela, gutxienez, premiamenduzko probidentziaren jakinarazpena.

Interesdunak zatikatzeko akordioa lortu zuen Ekonomia eta Ogasun Sailarekin eta, hari esker, zorra itzultzen ari da hilean 200 euro baino gehiagoko kuotak ordainduz.





2.- Kexa izapidetzeko onartu ondoren, Arartekoak informazio-eskaera bat bidali zion Lanbideri eta 30 eguneko epean kexaren arrazoiari loturiko inguruabarren berri emateko eskatu zion.

Zehazki:

- *Gertaerak argitzea: eman iezaguzu baliatu duzuen jakinarazpen prozeduraren berri, bidal iezazkiguzu erreklamazio prozedura abiarazi izana nahiz zenbatekoak itzuli beharra adierazten duten ebazpenak jakinarazteko saiakeren kopiak, eta jakinaraz iezaguzu noiz argitaratu ziren ebazpen horiek zegokion aldizkarian.*
- *Erreklamazio prozedura abiarazi izana nahiz zenbatekoak itzuli beharra adierazten duten ebazpenen kopiak.*
- *Egintzen preskripzioaren ezarpen juridikoa aplikatzeko aukera baloratu ote den.*
- *Azaldu iezaguzu zer betearazpen prozedurari jarraitu zaion zorra kobratzeko eta premiamenduzko probidentziaren zer jakinarazpen egin diren (bidali probidentzia horren kopia).*
- *Zergatik ez duen jaso kexagileak premiamenduzko probidentzia bere banku kontuko zenbatekoak blokeatu aurretik.*
- *Adieraz iezaguzu zergatik erreklamatzan zaion diru hori interesdunari eta zehazki zer zenbateko jaso zituen persona horrek bidegabe (horrekin batera, helarazi dagokion eranskin ekonomikoa).*

3.- Lanbidek erantzun hau eman du, bi txostenetan banatuta:

“(…) 2014ko irailaren 27an zuzendari nagusiaren 2014ko uztailaren 14ko ebazpena argitaratu zen BOEn. Ebazpen horretan, hasiera eman zitzaion itzultze-prozedurari, 10.046,74 € itzultzeko eskatuz oker kobratu zirelako, titularra besteren/norberaren kontura lanean egoteagatik, eta hilabeteko epea eman zen alegazioak aurkezteko.

Alegaziorik aurkeztu ez zenez, 2014/07/14an ebazpena eman zen aipatutako zenbatekoa itzultzeko betebeharra aitortuz. Ebazpen hori ere argitaratu zen BOEn, 2015/01/27an.

Espedientean ez dago jasota helbide-aldaketaren komunikaziorik, errekurtsogilearen aldetik. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikulua honela dio: “Ez





bada jakiterik prozedura bateko interesdunak nor diren, edo jakinarazpena non egin behar den, edo jakinarazpena egiten saiatu bai, baina huts egin bada, Estatuko Aldizkari Ofizialean iragarki bat argitaratuz egingo da jakinarazpena”.

2018ko otsailaren 22an, XXX andreak berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen ebazpen horren aurka. Beraz, garaiz kanpo aurkeztu zuen, eta, ondorioz, ez zen onartu. Horrela izan zen, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 124. artikulua hain xedatzen duelako aukerako berraztertze-errekurtsoei buruz: “Berraztertze-errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, egintza espresua bada”.

(...) Dirua itzultzeko prozedura 2014/07/14an abiatu zen, 2014/07/16an bidali zen postaz, eta 2014/08/13an eman zen argitara BOEn. Itzulketa horren ebazpena 2014/11/14an eman zen, 2017/11/17an bidali zen postaz, eta 2014/11/29an eman zen argitara BOEn.

Jakinarazteko bi saiakera horietan (prozeduraren abiatzea eta ebazpena), posta-zerbitzuak itzuli egin du gutuna, eta jakinarazi gabeko xedearen arrazoia ezezaguna izan da.

Prozedura bide betearaztera igorri da. Atxikita doa bidegabe jasotako zenbatekoen xehetasuna.”

4.- Jasotako erantzunak egindako informazio-eskaeran azaldutako gai guztiak barne hartzen ez zituela iritzita, eta kontuan hartuta Arartekoak, antzeko beste espediente batzuen testuinguruan, Lanbidek hartutako beste neurri batzuen berri izan zuela, bigarren informazio-eskaera bat egin zen. Bertan, aurretiazko gogoeta batzuk sartu ziren. Errepikakorrek ez izatearren, aurrerago aipatuko ditugu.

Arartekoak bi gairi buruzko azalpena eskatu zuen, berariaz:

-Eskatzen dizut argitu dezazula kexaespeditente honen testuinguruan zure sailak Arartekoari erantzun zionetik aldaketaren bat izan den eta, beraz, premiamenduko bidezko bidalketa nahiz prestazioak itzultzeko prozedura, berez, baliogabetu diren.





-Hala izan ezean, informazio eskaera honetan helarazten dizkizudan gogoetei buruzko zure iritzia eskatzen dizut, kexa-espeditente honen gainean Arartekoak azken balorazioa egin aurretik.

5.- Azkenean, erakunde honen erregistroan sartu zen Lanbideren bigarren idazki bat, erakunde honen azken eskaerari erantzuten ziona.

Zuzendari nagusiaren idazkiak hau zioen:

“Bidegabe jasotako kopuruak itzultzeko espedienteak indarrean jarraitzen du, eta prozedura bideak agortuta daude.

Enplegu-bulegoek mota guztietako informazioa ematen diete erabiltzaileei, gizarte-errentaren hartzaile diren aldetik dituzten eskubide eta betebeharrei buruz, bai eta espedienteetako mugimendu bakoitzean ematen diren mota guztietako ebazpenei buruz ere.”

6.- Lanbidek, Arartekoari igorritako erantzunean, emandako ebazpenen kopia erantsi du; hala, Arartekoak aztertu ahal izan ditu abiarazitako prestazioen erreklamazio-prozedurak jasotako jardunak. Azterketa horretan hauxe egiaztatu da:

-Itzultzeko prozedura hastea erabaki zuen ebazpena 2014ko uztailaren 14an eman zen eta hura jakinarazten saiatu zen, lehenik eta behin, 2014ko uztailaren 27an, 10:15ean; ondoren, 2014ko uztailaren 28an, 11:30ean. Azkenik, 2018ko apirilaren 17ko jakinarazpenaren bidez, Lanbidek kexagileari adierazi zion ebazpen hori BOEn argitaratu zela 2014ko irailaren 9an.

-Itzultzeko betebeharra adierazi zuen ebazpena 2014ko azaroaren 14an eman zen, eta **behin bakarrik jakinarazten ahalegindu zen**, zehazki, azaroaren 19an, 11:45ean. 2018ko apirilaren 17ko jakinarazpenean, Lanbidek kexagileari adierazi zion espedientearen itzultzeko prozeduraren ebazpena BOEn argitaratu zela 2015eko urtarrilaren 8an.

Hortaz, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin ditugu:





Gogoetak

1.- Erreklamatutako zorra betearazpen-bidera igorri du Lanbidek, ez baita borondatezko epean ordaindu. Emandako ebazpenak interesdunak jakinarazitako datan zuen helbidearekin bat ez zetorren helbide batera bidali ziren.

Kexa-espeditante honetan sortutako arazoa beste batzuetan aztertu du Arartekoak, prestazioak erreklamatzeko prozeduretan antzemandako gabeziatik sortzen baita, funtsean, jarduteko jarraibide egokirik ez egotetik pertsonak diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateari uzten ziotenetan, nahiz eta haien espeditanteak bidegabe jasotako prestazioengatik berrikusten jarraitu.

Arartekoak, **2020IR-38-19 Ebazpenaren bidez (2020ko urtarrilaren 10ekoa)**¹ ofizioz amaitu zuen jardunean, kasu horietan Lanbidek abiarazitako prozedura aztertu zuen, bai eta ondoren jasotako hobekuntzak ere.

Gainera, Arartekoak izapidetutako beste zenbait kexa-espeditantetan, kexagileek ere adierazi dute bulegoetatik bertatik esan dietela etxe aldaketaren berri emateko betebeharririk ez dagoela. 1830/2018/QC kexa-espeditantearen testuinguruan, **Lanbideko zuzendari nagusiaren txosten bat jaso da ere; bertan aitortzen denez, inguruabar horietan pertsonak ez zuen etxe aldaketaren berri emateko betebeharririk.**

Espeditante honetan, Lanbideko zuzendari nagusiaren erantzuna eta hari erantsitako dokumentazioa aztertu ondoren, Arartekoak uste du, lehenik eta behin, egiaztatu behar dela betetzen direla kexaren xede den itzultzeko prozedura osatzen duten egintzak jakinarazteari buruzko berme formalak.

Hemen interesatzen zaizkigun administrazio-egintzak eman zirenean aplikatu beharreko araudia kontuan hartuta, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 58. artikulua eta hurrengoak aplikatuko lirateke. Jakinarazpena egiteari buruzko 59.2 artikulua agintzen du **jakinarazpen pertsonala bi aldiz behintzat egiten ahalegindu beharko dela egun eta ordu ezberdinetan**. Zehazki, honako era honetan ezartzen du: *“Jakinarazpena interesdunaren bizilekuan egiten bada, jakinarazpena entregatzeko unean interesduna bertan ez badago, bizilekuan dagoen edozein pertsonak hartu ahal izango du, nor den jasota utziz. Bizilekuan jakinarazpenaz arduratzeko inor ez badago, hala jasoko da espeditantean, eta, horrez gain, jakinarazpena zein egunetan eta ordutan egin den ere idatziko da.*

¹ Hemen eskuragarri: www.arartekoa.eus



Hurrengo hiru egunetako batean eta aurrekoa ez den beste ordu batean, berriz saiatuko dira jakinarazpena egiten, behin bakarrik”.

Aurreko legezko erregulazioan jakinarazpena egiteari lotutako kontu batzuk ez ziren oso zehatzak izan, eta, horregatik, auzitegiek kasuistika ugarian zehaztu zituzten aipatutako arauaren 58. eta 59. artikuluetatik sortutako jakinarazpen-arauak. Besteak beste, ez zen legegilea hain argia izan bigarren jakinarazpen-saiakeraren ordutegia zehazteko orduan, *“ordu desberdina”* esamolde orokorra jasotzera mugatu baitzen, eta horrek hainbat interpretazio eragin ditzake. Auzitegi Gorenak, 2004ko urriaren 28an, epaia eman zuen legearen intereserako kasazio-errekurtso batean, eta, gaia aztertu ondoren, honako lege-doktrina hau ezarri zuen epaian: *“Que, a efecto de dar cumplimiento al art. 59.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, reformada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, la expresión de una hora distinta determina la validez de cualquier notificación que guarde una diferencia de al menos sesenta minutos a la hora en que se practicó el primer intento de notificación”*. Jurisprudentzia, beraz, proposatzailea izan da jakinarazpen pertsonala eraginkorra izango dela bermatzeko baldintzak planteatzearan.

Beraz, aztertu behar da interesatzen den kasuan Lanbidek bete zituen ala ez garai hartan indarrean zegoen araudiak ezartzen zizkion jakinarazpen-berme formalak.

Aipatuenez, Lanbideko zuzendari nagusiak erakunde honi eman dion txostenak kexaren xede den itzultzeko prozedura osatzen duten administrazio-egintza bakoitzaren kopia bat jasotzen zuen, bai eta Correosen frogagiriak ere; haietan jasotzen zen non eta nola jakinarazi nahi izan zitzaion interesdunari.

Jakinarazpen-saiakerak kexagilearen aurreko helbidean egin ziren bi kasuetan; izan ere, 2013ko azaroaren 23ko etete-ebazpenaz geroztik –diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen jarraitzeko gehieneko diru-sarrerak gainditu zituelako, laneko etekinak zituelako–, ez da berriz diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra izan, eta 2014ko otsailean aldatu zuen bizilekua. Aldaketa hori bere erreferentziatzako bulegoan jakinarazten ahalegindu zen.

-Itzultzeko prozedura hastea erabaki zuen ebazpena 2014ko uztailaren 14an eman zen eta hura jakinarazten saiatu zen, lehenik eta behin, 2014ko uztailaren 27an, 10:15ean; ondoren, 2014ko uztailaren 28an, 11:30ean. Itzuli behar zela adierazi zuen ebazpenari dagokionez, 2014ko azaroaren 14an erabaki zen, eta behin bakarrik jakinarazten saiatu zen, azaroaren 19an, 11:45ean, zehazki.





Horren ondoren, jakinarazpen pertsonalaren saiakera emaitzarik gabekoa izan ostean, Lanbidek BOEn argitaratu zituen kearen xede den prozedura osatzen duten egintzak; zehazki, prozeduraren hasiera 2014ko irailaren 9an argitaratu zen, eta haren ebazpena 2015eko urtarrilaren 8an.

Itzultzeko prozeduraren hasieraren jakinarazpena bi aldiz, egun eta ordu-tarte desberdinetan –gutxienez ordubeteko diferentziarekin– jakinarazteko ahalegina egin zela ikusi dugu, indarrean dagoen arauaren arabera.

Nolanahi ere, **itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpenaren jakinarazpena behin bakarrik egiten saiatu zen**, 2014ko azaroaren 19an; beraz, ezin da esan enplegu erakunde autonomoak orduan indarrean zegoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen betekizunak betetzen zituenik.

2.- Jakinarazpena funtsezko mekanismoa da hartzaileari administrazio-egintzaren edukiaren eta haren ondorioen berri emateko, administrazio-egintza bat irmo bihurtzeko epearen zenbaketa abiaraziz, bai eta horren aurka egiteko zer aukera eta epe dituen jakiteko ere.

Jakinarazpenaren funtzionaltasun garrantzitsu hori administrazio-prozedura informatzen duten hainbat printzipiotan oinarritzen da, funtsean: administrazioaren jarduna gidatu behar duen eraginkortasunaren printzipioan, administrazioaren eta administratuen arteko harremanetan fede onaren printzipioan, eta, bereziki, **segurtasun juridikoaren** printzipioan, administrazioak emandako ebazpenen eta egintzen gaineko ziurtasuna eta horiek hartzaileentzat izan ditzaketan ondorioak bermatzen baititu.

Jakinarazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuz egitea salbuespenezkoa eta subsidiarioa da, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak berak ezartzen duenez. Izan ere, jakinarazpena egiteko modu hori honako kasu hauetan bakarrik onartzen da: prozedura bateko interesdunak ezezagunak direnean, jakinarazpena non egin den ezagutzen ez denean, edo, hemen interesatzen zaigunaren arabera, jakinarazpen pertsonala egiten saiatu arren jakinarazpenik egin ezin izan denean (59.5 artikulua). Azken kasu horretan, beharrezkoa da alde aurretik egiaztatzea 59.2 artikuluan ezarritako betekizun formalak betetzen direla, eta, aztergai dugun kasuan, *ut supra* zehaztu den moduan, ez zirela eman itzultzeko betebeharra adierazten zuen ebazpenean.





Administrazio-egintza baten baliozkotasunik ezak, jakinarazpen akastun batetik sor daitekeenak bezala, zuzenean lotutako gainerako administrazio-egintzen baliozkotasunari eragiten dio, ez baitu bermatzen administratuaren defentsarako eskubidea, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak etengabe adierazi duen moduan². Horren harira, gogora ekarri behar da Konstituzio Auzitegiak (KA) aitortu duela jakinarazpen-egintzak *“cumplen una función relevante, ya que, al dar noticia de la correspondiente resolución, permiten al afectado adoptar las medidas que estime más eficaces para sus intereses, singularmente la oportuna interposición de los recursos procedentes”*; eta haren helburua dela *“finalidad material de llevar al conocimiento”* hartzaileei egintza eta ebazpenen berri ematea *“al objeto de que éstos puedan adoptar la conducta procesal que consideren conveniente a la defensa de sus derechos e intereses y, por ello, constituyen elemento fundamental del núcleo de la tutela judicial efectiva”* babesgabetasuna saihesten duen Espainiako Konstituzioaren 24.1 artikuluan jasota dagoena.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia ere argi eta garbi azaldu da puntu honetan, eta adierazi du komunikazio-egintzak bat datozela prozedura bateko interesdunen defentsa-eskubidearekin. Beraz, **jakinarazpenik ezak edo horren jardunbide akastunak haiek babesik gabe uztea dakar, prozedura-arauak urratuz, baina, funtsean, benetako babes judizialerako oinarritzko eskubidea ere urratzen du** (besteak beste, Auzitegi Gorenaren 1998ko uztailaren 17ko epaia, 1997ko ekainaren 28ko edo 2011ko ekainaren 28koa).

Horrenbestez, erakunde honek ondorioztatzen du 10.046,74 euro itzultzeko betebeharra zegoela adierazi zuen ebazpenaren jakinarazpena ez zela baliozkoa izan.

Hortaz, Arartekoaren iritziz, **Lanbidek jarraitu duen itzultzeko prozedura berrikusi behar du eta espedientea itzultzeko prozedura ebazteko unera eraman;** izan ere, administrazio-egintza horretan, enplegu-erakunde autonomoak ezin du egiaztatu garai hartan indarrean zegoen 30/1992 Legeak ezartzen zituen gutxieneko estandarrak bete dituenik.

² Konstituzio Auzitegiaren 155/1989 Epaia, urriaren 5ekoa, 2. Oinarri Juridikoa
Konstituzio Auzitegiaren 59/1998 Epaia, martxoaren 16koa, 3. Oinarri Juridikoa
Konstituzio Auzitegiaren 221/2003 Epaia, abenduaren 15ekoa, 4. Oinarri Juridikoa
Konstituzio Auzitegiaren 55/2003 Epaia, martxoaren 24koa, 2. Oinarri Juridikoa



3.- Agindu honek ezingo luke zenbateko hori itzultzeko eskatu, preskripzioaren institutu juridikoa aplikatuz, ezin baita prestazioak erreklamatzeko beste prozedura bat hasi, erreklamazio-akzioa preskribatu egin dela eta.

Kexagileak erakunde honi eman dion informazioaren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titulartasunean eragina izan zezakeen edozein gertaera jakinarazteko betebeharra bete zuen; hala, lan-jarduera bat hasi zuenean, bere erreferentziazko bulegoan eman zuen horren berri, eta hark prestazioa eten zuen 2013ko azaroaren 23ko ebazpenaren bidez. Prestazioaren ordainketa eteten Lanbidek izandako atzerapenak zorra sortzea eragin zuen.

Berrikusitako epealdia, aurrekarien atalean adierazi denez, 2012ko urtarrilaren 1etik 2013ko urriaren 31 bitarte da, eta itzultzeko betebeharra adierazi zuen ebazpena 2014ko azaroaren 14koa da. Gainera, adierazi berri dugun moduan, Lanbidek beranduenez 2013ko azaroaren 23an jakin zuen itzultzeko betebeharra eragin zuen gertakariaren berri, hau da, etete-ebazpena eman zen egunean.

Gaur egun, 2020ko otsailean, zenbateko horiek dagoeneko preskribatuta egongo liriteke 147/2010 Dekretuaren 58. artikuluan ezarritakoaren arabera, 4 urteko epea ezartzen baitu, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren araudira igortzearen bidez (1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena). Beraz, gomendio hau onartzen bada eta prestazioak erreklamatzeko prozedura berriz aztertzen bada, zorra preskribatutzat jo beharko zen.

Adierazitako guztiagatik, honako gomendio hau ematen da:

GOMENDIOA

Arartekoak gomendatzen du kexaren xede den prestazioen erreklamazio-prozedura berriz azter dadila, ez baitira bete jakinarazpena egiteko aurreikusitako berme formalak, eta, preskripzioaren institutu juridikoa aplikatuz, Lanbidek preskribatutzat jo dezala erreklamaturako zorra.

